



Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea  
Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer

<b>PROGRAMA</b>	<b>PROGRAMA</b>
3223 EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA	3223 EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
<b>ARDURADUNA</b>	<b>RESPONSABLE</b>
47 EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA	47 EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEKO ZUZENDARIA	DIRECTORA DE EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

## HELBURUA

- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN APLIKAZIOA SUSTATZEA.
- ERAKUNDEAREN KUDEAKETA HOBETZEA.
- EAE-KO BOTERE PUBLIKOEN BERDINTASUNAREN ARLOAN GAUZATU BEHAR DUTEN JARDUERA BIDERATZEKO JARRAIBIDE OROKORRAK EZARTZEA.
- ADMINISTRAZIO PUBLIKOKO LANGILE GUZTIAK BERDINTASUNAREN ARLOAN TREBATZEA SUSTATZEA.
- EAE-KO INSTITUZIO PUBLIKOEI LAGUNTZEA BERDINTASUNA EUREN ANTOLAMENDUAN, LAN-PROZEDURETAN ETA POLITIKA ESPEZIFIKOETAN TXERTATZEN.
- EAE-N BERDINTASUNERAKO POLITIKA PUBLIKOAK GAUZATZEKO KOORDINAZIOA BULTZATZEA.
- ESTATU MAILAKO ETA NAZIOARTEKO LANKIDETZA AREAGOTZEA.
- EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONALA, KOLEKTIBOA, SOZIALA ETA POLITIKOA SUSTATZEA.
- ANTOLAKETA SOZIALA ETA EKONOMIKOA ERALDATZEA SUSTATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO.
- EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA MURRIZTEN ETA PREBENTZIOA, DETEKZIOA ETA ARRETA HOBETZEN LAGUNTZEA.

## BETETZE MAILA

- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN APLIKAZIOA SUSTATZEA.

Martxoaren 3an, Eusko Legebiltzarrak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egiteko 1/2022 Legea onartu zuen.

## OBJETIVO

- IMPULSAR LA APLICACIÓN DE LA LEY PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES.
- MEJORAR LA GESTIÓN DEL INSTITUTO.
- ESTABLECER LAS DIRECTRICES GENERALES QUE HAN DE ORIENTAR LA ACTIVIDAD DE LOS PODERES PÚBLICOS VASCOS EN MATERIA DE IGUALDAD.
- PROMOVER LA CAPACITACIÓN EN IGUALDAD DE TODO EL PERSONAL DE LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA.
- APOYAR A LAS INSTITUCIONES PÚBLICAS VASCAS PARA FACILITAR LA INTEGRACIÓN DE LA IGUALDAD EN SU ORGANIZACIÓN, EN SUS PROCEDIMIENTOS DE TRABAJO Y EN SUS POLÍTICAS ESPECÍFICAS.
- IMPULSAR LA COORDINACIÓN EN EL DESARROLLO DE LAS POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA CAE.
- INCREMENTAR LA COOPERACIÓN ESTATAL E INTERNACIONAL.
- PROMOVER EL EMPODERAMIENTO PERSONAL, COLECTIVO, SOCIAL Y POLÍTICO DE LAS MUJERES.
- IMPULSAR LA TRANSFORMACIÓN DE LA ORGANIZACIÓN SOCIAL Y ECONÓMICA PARA GARANTIZAR DERECHOS.
- CONTRIBUIR A REDUCIR LA VIOLENCIA MACHISTA CONTRA LAS MUJERES Y A MEJORAR EN LA PREVENCIÓN, LA DETECCIÓN Y LA ATENCIÓN.

## GRADO DE CUMPLIMIENTO

- IMPULSAR LA APLICACIÓN DE LA LEY PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES.

El 3 de marzo el Parlamento Vasco aprobó la Ley 1/2022 de segunda modificación de la Ley para la Igualdad de mujeres y hombres.



Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea  
Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer

Legea jendaurrean aurkezteko, aurrez aurreko eta streaming bidezko hiru saio egin ditugu hiru lurralde historikoetan, baita beste foro batzuetan aurrez aurreko beste 3 aurkezpen ere. Emakunderen webgunean, bideoak eta aldaketa nagusiak jasotzen dituen dokumentu bat eskuratu daitezke.

Era berean, legearen agindu berriak modu koherente eta ordenatuan aplikatzea bultzatzeko, Sailarteko Batzordearen eta Erakundearteko Batzordearen esparruan, Emakundek 23 txosten egin ditu Jaurlaritzako sailentzat eta inplikaturako gainerako erakunde publikoentzat, horietako bakoitzak bete behar dituen agindu berriak identifikatuta. Gainera, bakoitzari etorkizunean agindu horiek aplikatzeko egingo dituen ekintzei buruzko informazioa emateko eskatu diogu.

Horrez gain, legearen testu bategina lantzen hasi gara eta, horrekin batera, legea garatzeko oinarritzko dokumentuak, honako arlo hauei lotuak: kontratazio publikoa, dirulaguntzak, prestakuntza, plan estrategiko eta sektorialak eta Berdintasunaren Behatokia.

## 2. ERAKUNDEAREN KUDEAKETA HOBETZEA.

Emakunderen 2022-2024 aldirako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana onartu eta garatu dugu.

Emakunderen 2022-2024 aldirako Kudeaketa Publiko Aurreraturako Plana egin dugu. 2022. urtean, 18 ekintza egin ditugu.

2022rako Euskararen Erabilera Kudeatzeko Plana onartu eta garatu dugu. 2022an, 22 ekintza egin ditugu.

Emakundeko Zuzendaritza Batzordeak ohiko bilkura bat egin du, eta, bilkura horretan, Berdintasunerako Legeak eskaturako txostenak onartu ditugu.

Emakunderi, Begirari, Defentsa Erakundeari eta Gizonduzi lotutako 4 jarduketak-memoriak egin ditugu.

## 3. EAE-KO BOTERE PUBLIKOEN BERDINTASUNAREN ARLOAN GAUZATU BEHAR DUTEN JARDUERA BIDERATZEKO JARRAIBIDE OROKORRAK EZARTZEA.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VIII. Plana egiteko lan-prozesuan, 2 hausnarketa-saio, kontraste teknikoko 2 saio eta kontraste sozialeko saio 1 egin ditugu.

EAEko udalerrri, kuadrilla eta mankomunitateei begira, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak egiteko eta/edo berdintasun-planak eta plan sektorialak sortu eta ebaluatzeko laguntza teknikoak izateko dirulaguntzen deialdia egin dugu. Berrogeita lau (44) proiektu garatzeko dirulaguntzak eman ditugu. Nabarmentzekoa da 5.000 biztanletik beherako 14 udalerririk eta 5.000 biztanletik beherako 16 udalerririk biltzen dituzten 4 mankomunitate edo kuadrillak jaso dutela dirulaguntza (guztira 5.000 biztanletik beherako 30 udalerririk).

*Se han realizado tres sesiones presenciales y vía streaming de presentación pública de dicha ley en los tres territorios históricos, así como otras 3 presentaciones presenciales en otros foros. Los vídeos y un documento con las principales modificaciones están disponibles en la web de Emakunde.*

*Asimismo, para impulsar la aplicación de los nuevos mandatos de la ley de forma coherente y ordenada, en el marco de la Comisión Interdepartamental y de la Comisión Interinstitucional, Emakunde ha elaborado 23 informes para los departamentos del Gobierno y el resto de instituciones públicas implicadas donde se identifican los nuevos mandatos que a cada una de ellas les corresponde cumplir. Además, en su caso, se les ha solicitado información sobre las acciones previstas desarrollar en el futuro para la aplicación de dichos mandatos.*

*Además, se ha iniciado la elaboración del texto refundido de la ley y de los documentos base para el desarrollo de la ley en los siguientes ámbitos: contratación pública, subvenciones, formación, planes estratégicos y sectoriales y el Observatorio para la Igualdad.*

## 2. MEJORAR LA GESTIÓN DEL INSTITUTO.

*Se ha aprobado y desarrollado el Plan para la Igualdad de mujeres y hombres 2022-2024 de Emakunde.*

*Se ha elaborado y desarrollado el Plan de Emakunde para la Gestión Pública Avanzada 2022-2024. Durante el 2022 se han llevado a cabo 18 acciones.*

*Se ha elaborado y desarrollado el Plan de Gestión del Uso del Euskera 2022. En 2022 se han realizado 22 acciones.*

*El Consejo de Dirección de Emakunde ha realizado una sesión ordinaria en la que se han aprobado los informes requeridos por la Ley para la Igualdad.*

*Se han elaborado las 4 Memorias de actuación relativas a Emakunde, Begira, Defensoría y Gizonduz.*

## 3. ESTABLECER LAS DIRECTRICES GENERALES QUE HAN DE ORIENTAR LA ACTIVIDAD DE LOS PODERES PÚBLICOS VASCOS EN MATERIA DE IGUALDAD.

*En el proceso de trabajo para la elaboración del VIII Plan para la Igualdad de mujeres y hombres en la CAE se han realizado 2 sesiones de reflexión, 2 sesiones de contraste técnico y 1 sesión de contraste social.*

*Se ha realizado la convocatoria de subvenciones dirigida a municipios, cuadrillas y mancomunidades de la CAE destinadas a proporcionar la asistencia técnica necesaria para la realización de diagnósticos y/o elaboración y evaluación de planes para la Igualdad de Mujeres y Hombres y planes sectoriales, y se han concedido subvenciones para el desarrollo de 44 proyectos. Cabe destacar que 14 municipios de menos de 5.000 habitantes y 4 mancomunidades o cuadrillas compuestas por 16 municipios de menos de 5.000 habitantes han recibido*



Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea  
Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer

Indarrean dagoen EAEko Berdintasunerako Planean ezarritako jarraibide orokorretara egokitzeari dagokionez, sailen 13 plani, 2 foru-planari (foru-erakundeari buruzkoa barne) eta 13 toki-planari buruzko txostenak egin ditugu. Eta aholkuak eman dizkiegu zenbait udali, berdintasun-planak egiteko eta materialak sortzeko eta berrikusteko hasitako prozesuan.

124 erakundeek eman dute informazioa indarrean dagoen EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planaren betetzeari buruzko jarraipen-txostena egiteko.

#### 4. ADMINISTRAZIO PUBLIKOKO LANGILE GUZTIAK BERDINTASUNAREN ARLOAN TREBATZEA SUSTATZEA.

IVAPekin elkarlanean jarraitu dugu, Administrazio Orokorrari eta haren erakunde autonomoei zuzendutako Berdintasunaren arloko Prestakuntza Planaren jarraipena egiten eta garatzen eta prestakuntza-plan berri bat diseinatzeko oinarriak adosten. Horretarako, 4 bilera egin ditugu urtean zehar.

Gainera, Emakundeko langileek prestakuntza eman dute «Emakumeen eta gizonen berdintasuna proiektuetan» ikastaroan.

Era berean, 4/2005 Legeak arlo honetan ezarritako agindu berriei erantzuteko asmoz, Eusko Jauriaritzako langileentzako prestakuntza-estrategia bat osatzeko aurretiazko azterlan bat egin dugu, IVAPekin lankidetzan.

#### 5. EAE-KO INSTITUZIO PUBLIKOEI LAGUNTZEA BERDINTASUNA EUREN ANTOLAMENDUAN, LAN-PROZEDURETAN ETA POLITIKA ESPEZIFIKOETAN TXERTATZEN.

Araudiaren generoaren araberako eragina aurretiaz ebaluatzeko prozedurarekin lotutako 87 espediente izapidetu ditugu. Bestalde, genero-eraginari buruzko txostenak egiteko 12 gidaliburu edo material sektorial eguneratu ditugu, eta kontsulta eta informazio-eskaera askori erantzun diegu telefonoaren eta posta elektronikoen bidez.

Ekonomia eta Ogasun Sailarekin elkarlanean aritu gara, aurrekontuetan genero-ikuspegia txerta dadin sustatzeko.

Europako egitura- eta inbertsio-funtsek kofinantzatutako esku-hartzeetan eta 2021-2027 aldirako EGIF eta EGEF Programen lanketan genero-ikuspegia txertatzeko aholkuak eta laguntza eman ditugu. Horretarako, 18 bilera eta aholkularitza-dokumentu egin ditugu.

Honako hauen lanketan, ezarpenean eta/edo jarraipenean parte hartu dugu: Basque Country Nazioartekotzeko Esparru

*subvención (en total 30 municipios de menos de 5.000 habitantes).*

*Se han informado, con relación a su adecuación a las directrices generales establecidas por el Plan vigente para la Igualdad de la CAE, 13 planes departamentales, 2 forales (se incluye el de un instituto foral) y 13 locales. Y se ha asesorado a ayuntamientos en el proceso iniciado para la elaboración de sus planes para la igualdad y en la elaboración y revisión de materiales.*

*124 instituciones han aportado información para la realización del informe de seguimiento de la ejecución del Plan vigente para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la CAE.*

#### 4. PROMOVER LA CAPACITACIÓN EN IGUALDAD DE TODO EL PERSONAL DE LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA.

*Se ha continuado colaborando con el IVAP en el seguimiento y desarrollo del Plan de Formación en Igualdad para la Administración General y sus Organismos Autónomos y acordar las bases para el diseño de un nuevo plan formativo. A tal fin, se han realizado 4 reuniones a lo largo del año.*

*Además, el personal de Emakunde ha impartido formación en el curso "Igualdad de mujeres y hombres en proyectos".*

*Asimismo, se ha elaborado un estudio preliminar para la elaboración, en colaboración con el IVAP, de una estrategia formativa para el personal del Gobierno Vasco que dé respuesta a los nuevos mandatos de la Ley 4/2005 en esta materia.*

#### 5. APOYAR A LAS INSTITUCIONES PÚBLICAS VASCAS PARA FACILITAR LA INTEGRACIÓN DE LA IGUALDAD EN SU ORGANIZACIÓN, EN SUS PROCEDIMIENTOS DE TRABAJO Y EN SUS POLÍTICAS ESPECÍFICAS.

*Se han tramitado 87 expedientes en relación con el procedimiento de evaluación previa del impacto en función del género de la normativa. Por otra parte, se han actualizado 12 Guías o materiales sectoriales de ayuda para la elaboración de los informes de impacto de género y se han atendido un buen número de consultas y peticiones de información a través del teléfono y del correo electrónico.*

*Se ha colaborado con el Departamento de Economía y Hacienda para promover la incorporación de la perspectiva de género en los presupuestos.*

*Se ha asesorado y apoyado en la incorporación del enfoque de género en las intervenciones cofinanciadas por los Fondos Estructurales y de inversión europeos y en la elaboración de los Programas 2021-2027 de FSE y FEDER. Para ello, se han realizado 18 reuniones y documentos de asesoramiento.*

*Se ha participado en la elaboración, implantación y/o seguimiento de la Estrategia Marco de Internacionalización:*



Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea  
Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer

Estrategiarenean, IV. Gazte Planarenean eta EAEko Hezkuntza-Sistamarako II. Hezkidetzaren Plana, Berdintasunaren eta Tratu Onaren Bidean delakoarenean.

## 6. EAE-N BERDINTASUNERAKO POLITIKA PUBLIKOAK GAUZATZEKO KOORDINAZIOA BULTZATZEA.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordearen esparruan, Batzordeak bilera 1 egin du, eta Erakundearteko Talde Teknikoa eta lantalde teknikoak koordinatu ditugu. Lantalde horien esparruan, 2022an, dirulaguntza eta kontratu publikoetan berdintasun-klausulek duten ezarpenari buruzko ebaluazioa egin dugu, tokiko berdintasun-politiken koordinazioa hobetzeko 13 bilera egin ditugu eta Europako egitura- eta inbertsio-funtsetan berdintasuna txertatzeko 18 bilera.

Sailarteko Batzordearen esparruan, Batzordeak ohiko bilera 1 egin du, eta Sailarteko Talde Teknikoa koordinatu dugu. STTaren esparruan, 6 bilera egin ditugu.

Luzatu egin ditugu emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako euskal udalerrien sareak (Berdinsarea) eta Virginia Woolf Basqueskolak funtzionatzeko eta biztanle gutxiko udalerrietan berdintasunaren arloko politiketan aholkularitza-zerbitzua garatzeko Eudelekin egindako lankidetzaren hitzarmenak. Hitzarmen horien esparruan, 7 koordinazio-bilera egin ditugu, eta dauden batzar, batzorde eta lantaldeen 58 bilera eta bilkura.

Hiri Antolamenduko Plan Orokorretan Generoaren Araberako Eragina Ebaluatzeko Gida osatzeko prozesua amaitu dugu.

## 7. ESTATU MAILAKO ETA NAZIOARTEKO LANKIDETZA AREAGOTZEA.

Berdintasun Konferentzia Sektorialean eta Egitura Funtsetako Berdintasun Politiken Sarean parte hartzen jarraitu dugu.

Nazio Batuen Erakundeko Emakumeen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordearen 66. bileraren (CSW66) programa ofizialean parte hartu dugu eta programaren barruan bi ekitaldi paralelo antolatu ditugu. Gainera, Nazio Batuen NBE-Emakumeak, NBGP eta NBPF agentziekin eta nazioarteko beste erakunde batzuekin elkarlanean jarraitu dugu, baterako ekitaldiak eta programak garatzeko. NBPFrentzako 2 dirulaguntza izendun izapidetu ditugu.

Europako testuinguruan, Genero Berdintasunaren Europako Institutuarekin (EIGE) lankidetzan aritu gara, eta antolatutako 2022ko Europako Berdintasunerako Foroan parte hartu dugu. Horrez gain, Europako Batzordearekin lankidetzan aritu gara, hark kontratazio publikoaren arloko berdintasunari buruz eman duen prestakuntzan. Hiri-garapen jasagarria sustatzen duen Europako URBACT ikaskuntza- eta elkartruke-proiektuan parte hartu dugu.

*Estrategia Basque Country, el IV. Plan Joven y el II. Plan de Coeducación para el sistema educativo vasco, en el camino hacia la igualdad y el buen trato.*

## 6. IMPULSAR LA COORDINACIÓN EN EL DESARROLLO DE LAS POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA CAE.

*En el marco de la Comisión Interinstitucional para la Igualdad de Mujeres y Hombres, se ha celebrado 1 sesión de la Comisión y coordinado el Grupo Técnico Interinstitucional y los Grupos Técnicos de Trabajo. En el marco de dichos grupos de trabajo, en 2022, se ha realizado una evaluación de la incorporación de cláusulas de igualdad en las subvenciones y contratos públicos y 13 reuniones relacionadas con la mejora de la coordinación de las políticas de igualdad locales y 18 reuniones dirigidas a la incorporación de la igualdad en los Fondos Estructurales y de Inversión Europeos.*

*En el marco de la Comisión Interdepartamental, se ha realizado 1 sesión ordinaria de la Comisión y coordinado el Grupo Técnico Interdepartamental. En el marco del GTI se han realizado 6 reuniones.*

*Se han prorrogado los convenios de colaboración con Eudel para el funcionamiento de la Red de municipios por la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres (Berdinsarea), Virginia Woolf Basqueskola y para el desarrollo del servicio de asesoramiento en políticas de igualdad a municipios con menor población. En el marco de dichos convenios, se han realizado 7 reuniones de coordinación y 58 reuniones y sesiones de las distintas asambleas, comisiones y grupos de trabajo existentes.*

*Se ha concluido el proceso de elaboración de la Guía para evaluaciones de impacto en función del género en los Planes Generales de Ordenación Urbana.*

## 7. INCREMENTAR LA COOPERACIÓN ESTATAL E INTERNACIONAL.

*Se continúa participando en la Conferencia Sectorial de Igualdad y en la Red de políticas de igualdad en los fondos estructurales.*

*Se ha participado en el programa oficial y se han organizado dos eventos paralelos en el programa de la sesión 66 de la Comisión de la Condición Jurídica y Social de la Mujer de las Naciones Unidas (CSW66). Además, se ha seguido colaborando con las agencias de las Naciones Unidas ONU-Mujeres, PNUD y UNFPA y otras organizaciones internacionales para el desarrollo de eventos y programas conjuntos. Se han tramitado 2 subvenciones nominativas a UNFPA.*

*En el contexto europeo, se ha colaborado con el Instituto Europeo de Igualdad de Género (EIGE) y se ha participado en el Foro Europeo para la Igualdad 2022 organizado por aquél. Se ha colaborado también con la Comisión Europea en la formación impartida por ésta con relación a la igualdad en la contratación pública. Se ha participado en el proyecto europeo URBACT de aprendizaje e intercambio que promueve el desarrollo urbano sostenible. Se ha seguido*





Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea  
Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer

Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritzarekin lankidetzan, Berdintasunari eta Generoari buruzko Lantaldea zuzentzen jarraitu dugu, Europako Itsas Eskualde Periferikoen Konferentziaren esparruan (IEPK). Era berean, Europako Egitura eta Inbertsio Funtzen Plan Operatiboen Jarraipen Batzordeen esparruan nahitaezko txostenak egiten eta ematen parte hartu dugu.

Txileko eta Mexikoko gobernuarekin sinatutako hitzarmenen jarraipena egin dugu, eta Montevideoko Intendentziarekin, Txileko Maipu udalerrarekin eta Argentinako Buenos Aires, Córdoba eta Santa Fé probintziekin elkarlanean aritu gara, berdintasunaren arloko ezagutzak, esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko.

## 8. EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONALA, KOLEKTIBOA, SOZIALA ETA POLITIKOA SUSTATZEA.

Aholku Batzordeak lurraldearteko ohiko 3 bilera egin ditu, eta Lurraldeetako Aholku Azpibatzaordeek hilero bilerak egin dituzte.

Aholkularitza, prestakuntza eta informazioa eman diegu hiru lurralde historikoetako emakumeen elkartei.

2022an Euskal Autonomia Erkidegoan elkartegintza sustatzea eta esparru guztietan emakumeen partaidetza indartzea xede duten proiektuak egiteko dirulaguntzen deialdia egin dugu, emakumeen elkarte, federazio eta fundazioei zuzendua. 111 eskaera aurkeztu dira (135 proiektuekin lotuak) eta 100 elkarte jaso dute dirulaguntza (124 proiektuekin lotuak).

Berdinsarearen esparruan, Virginia Woolf Basqueskolarako (Euskadiko tokiko emakume hautetsien sarea) 2022ko programa-proposamena diseinatu dugu.

2021eko Emakunde Saria emateko ekitaldia egin dugu, baita 2022ko Berdintasunaren aldeko Emakunde Sarirako deialdia ere; azken horretara 19 hautagaitza aurkeztu dira. Epaimahaia hautagaitzak aztertu eta irabazlea aukeratzeko bildu ondoren, 2022ko saria On-giz elkartearentzat izan da.

30 emakume ahaztezin erakusketa antolatzen ari gara, hainbat diziplinan nabarmendu ziren euskal emakumeak omentzeko eta gogora ekartzeko.

KCD garapenerako gobernu kanpoko erakundeari dirulaguntza eman diogu, Zinema Ikusezinaren Jaialdian emakumeek egindako lanen artean onenaren saria bultzatzeko.

Deustuko Unibertsitateak sustatutako Emakume Teknologoaren Ada Byron Sarian lagundu dugu, eta epaimahaian zein sari-banaketan parte hartu dugu.

Bertsozale Elkarteari dirulaguntza bat eman diogu, bertsolaritzan genero-ikuspegia txertatzea sustatzeko eta emakume bertsolarien ahalduntzea babesteko.

*liderando, en colaboración con la Delegación de Euskadi para la Unión Europea, el Grupo de Trabajo sobre Igualdad y Género en el marco de la Conferencia de las Regiones Periféricas Marítimas de Europa (CRPM). Asimismo, se ha participado y emitido los preceptivos informes en el marco de los Comités de Seguimiento de los Planes Operativos de los Fondos Estructurales y de Inversión Europeos.*

*Se ha hecho seguimiento de los convenios firmados con los gobiernos de Chile y México y colaborado con la Intendencia de Montevideo, el municipio chileno de Maipu y las provincias argentinas de Buenos Aires, Córdoba y Santa Fé para intercambiar conocimiento, experiencias y buenas prácticas en el ámbito de la igualdad.*

## 8. PROMOVER EL EMPODERAMIENTO PERSONAL, COLECTIVO, SOCIAL Y POLÍTICO DE LAS MUJERES.

*Se ha celebrado 3 reuniones interterritoriales ordinarias de la Comisión Consultiva y sesiones mensuales en las Subcomisiones Consultivas Territoriales.*

*Se han ofrecido asesoramiento, formación e información a las Asociaciones de Mujeres de los tres Territorios Históricos.*

*Se ha realizado la convocatoria de subvenciones dirigida a asociaciones y federaciones y fundaciones de mujeres para la realización de proyectos en el ejercicio de 2022 para fomentar el asociacionismo y potenciar la participación de las mujeres en todos los ámbitos de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Se han presentado 111 solicitudes (relativas a 135 proyectos) y han recibido subvención 100 asociaciones (relativas a 124 proyectos).*

*En el marco de Berdinsarea se ha diseñado la propuesta de programa 2022 para "Virginia Woolf Basqueskola", la red de mujeres electas locales de Euskadi.*

*Se ha celebrado el acto de entrega del Premio Emakunde 2021 y se ha convocado el Premio Emakunde a la Igualdad 2022 al que se han presentado 19 candidaturas. Se ha reunido el jurado para la deliberación y otorgación del premio que en su edición del año 2022 ha sido para On-giz Elkarte.*

*Se está gestionado la organización de la exposición "30 mujeres inolvidables" para homenajear y recordar a mujeres vascas que destacaron en distintas disciplinas.*

*Se han concedido subvención a la asociación KCD-ONGD para apoyar el Premio a la mejor obra realizada por una mujer en el Festival de Cine Invisible.*

*Se ha colaborado con el Premio Ada Byron a la Mujer Tecnóloga promovido por la Universidad de Deusto y se ha participado tanto en el jurado como en la entrega del premio.*

*Se ha concedido subvención a Bertsozale Elkarte para promover la incorporación de la perspectiva de género en la bertsolaritza y para apoyar el empoderamiento de las mujeres bertsolaris.*



Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea  
Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer

## 9. ANTOLAKETA SOZIALA ETA EKONOMIKOA ERALDATZEA SUSTATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO.

Berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizitzan aldeko HERRI ITUNA aurkeztu eta abiatu dugu, Generation Equality proiektuaren esparruan, zeina Beijingeko IV. Konferentziaren 25. urteurrena ospatzeko prestatu baitzen.

Emakumeen Nazioarteko Egunekeo (martxoak 8) kanpaina antolatu dugu, lelo honen pean: «Benetan? Hau da guretzat nahi duzuen?».

Aisialdi-guneetan eta udan eraso sexistak prebenitzeko kanpaina egin dugu, BELDUR BARIK programaren esparruan.

Emakumeen Kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunekeo (azaroak 25) sentsibilizazio-kanpaina egin dugu, honako lelo honen pean: «Zer ez duzu ulertu nahi? Soilik bai da baietz».

Berdintasunarekin lotutako mezuak dituzten 80.000 eskola-agenda baino gehiago banatu dizkiegu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) ikasleei.

Emakunderen ataria ([www.emakunde.euskadi.eus](http://www.emakunde.euskadi.eus)) eta Berdingunerena ([www.berdingune.euskadi.eus](http://www.berdingune.euskadi.eus)) eguneratu eta mantendu ditugu, baita Emakunderen sare sozialak ere.

Zifrak 2022 txostena egin dugu.

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko ikerketak egiteko 3 beka esleitu ditugu.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko ikerlanen VIII. lehiaketa ebatzi dugu, eta IX. ediziorako deialdia egin.

EAEko espetxeetan preso dauden emakumeen egoerari buruzko ikerlan bat hasi dugu.

Gizonduz ekimenaren 15. urteurrena dela eta, gizonen, maskulinitateei eta politika publikoei buruzko nazioarteko kongresua antolatu dugu, eta 300dik gora pertsonak parte hartu dute.

Klimaterioarekin eta menopausiarekin lotutako esku-hartzeko sanitarioetako genero-ikuspegia aztertzeke osasun-jardunaldi bat egin dugu. 75 pertsonak eman dute izena –73 emakumeak ziren, 1 gizona, beste 1 bestelako nortasunekoak–.

Emakumeen ahalduntzeari buruzko jardunaldi bat antolatu dugu, «Emakumeak eta zaharrak. Botere eraldatzailea eraikitzen» izenburupean. Guztira, 236 pertsonak hartu dute parte –233 emakumeak eta 3 gizonak–.

Berdintasunerako eskola birtuala abian jartzeko aurretiazko lanei ekin diegu. Hala, diagnostiko bat, mapaketa bat, atari birtualaren egitura-proposamen bat eta ikastaroen lehen proposamen bat egin ditugu.

Laguntza teknikoa eta ekonomikoa eman diogu Euskal Herriko Unibertsitateari, Emakumeen eta Gizonen Aukera

## 9. IMPULSAR LA TRANSFORMACIÓN DE LA ORGANIZACIÓN SOCIAL Y ECONÓMICA PARA GARANTIZAR DERECHOS.

*Se ha presentado y puesto en marcha el PACTO DE PAIS por la igualdad y vidas libres de violencia contra las mujeres, en el marco del proyecto Generation Equality desarrollado con motivo de la conmemoración de los 25 años de la IV Conferencia de Beijing.*

*Se ha llevado a cabo la campaña del 8 de marzo Día Internacional de las Mujeres bajo el lema “¿En serio? ¿Es esto lo que queréis para nosotras?”.*

*Se ha llevado a cabo la campaña para la prevención de agresiones sexistas en espacios de ocio y en verano, en el marco del programa BELDUR BARIK.*

*Se ha llevado a cabo la campaña de sensibilización con motivo del 25 de noviembre. Día Internacional para la erradicación de la violencia contra las mujeres con el lema: “¿Qué no quieres entender? Solo sí es sí”.*

*Se han distribuido más de 80.000 agendas escolares con mensajes relacionados con la igualdad al alumnado de Enseñanza Secundaria Obligatoria (ESO).*

*Se ha actualizado y mantenido el portal [www.emakunde.euskadi.eus](http://www.emakunde.euskadi.eus) y el portal [www.berdingune.euskadi.eus](http://www.berdingune.euskadi.eus), así como las redes sociales de Emakunde.*

*Se ha elaborado el Informe Cifras 2022.*

*Se han adjudicado las 3 Becas de investigación en materia de igualdad de mujeres y hombres.*

*Se ha resuelto el VIII. certamen de trabajos de investigación en materia de igualdad entre hombres y mujeres y se ha convocado la IX. edición.*

*Se ha iniciado un trabajo de investigación en relación a la situación de las mujeres privadas de libertad en los centros penitenciarios de la CAE.*

*Con ocasión del 15 aniversario de Gizonduz, se ha organizado el Congreso internacional sobre hombres, masculinidades y políticas públicas, en el que han participado más de 300 personas.*

*Se ha organizado una jornada sobre salud en la que se ha abordado la perspectiva de género en la intervención sanitaria del climaterio y la menopausia. Se han inscrito 75 personas- 73 mujeres, 1 hombre 1 Otras identidades-.*

*Se ha organizado una jornada sobre el empoderamiento de las mujeres, bajo el título de Mujeres y viejas: construyendo poder transformador. Han participado 236 personas -233 mujeres, 3 hombres-.*

*Se han iniciado los trabajos preliminares para poner en marcha la escuela virtual para la igualdad a través de un diagnóstico, mapeo, una propuesta de estructura del portal virtual, y una primera propuesta de cursos.*

*Se ha colaborado técnica y económicamente con la Universidad del País Vasco para el desarrollo de la XVI Edición (2021-2022) del “Máster on-line en Igualdad de*



Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea  
Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer

Berdintasunari buruzko onlineko Masterraren XVI. edizioa (2021-2022) eta XVII. edizioa (2022-2023) egiteko.

UPV/EHUrekin elkarlanean jarraitu dugu, hitzarmen baten bidez, bi ikastaro online emateko: «Emakumeen eta gizonen berdintasuna»; eta, «Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak». Eta horren jarraipena egiteko 2 bilera egin ditugu.

UPV/EHUko Zuzenbide Fakultatearekin elkarlanean aritu gara, Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoan lantzeko kasuak emanda eta UPV/EHUko Zuzenbideko Graduak eta Berdintasun Masterreko ikasleen praktiketako tutore izanda.

Deustuko Unibertsitatearen emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko masterra egiteko bekak eman ditugu.

Udako ikastaro hau antolatu dugu, UPV/EHUrekin elkarlanean: «Klima aldaketa eta feminismoa: oraina birpentsatu etorkizuna eraikitzeko».

Maite Albiz Emakumeen Dokumentazio Zentroari dirulaguntza bat eman diogu.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari babesa eta laguntza eman dizkiogu, berdintasun-politikak garatzeko aholkularitza jasotzeko dirulaguntza izendun bat emanez.

Dokumentazio Zentroa kudeatzeko eta mantentzeko lanak egiten jarraitu dugu, baita erabiltzaileei arreta emateko eratorritakoak ere.

Eremu pribatuko sexuagatiko bereizkeriaren inguruan herritarrek egindako eskabideak izapidetzen jarraitu dugu.

BEGIRA batzordearen esparruan, gogoeta bat egin dugu, hedabideekiko eta publizitate-agentziekiko lanean hobekuntzak egiteko, baita berdintasunerako legearen agindu berriak txertatzeko ere. EAEko komunikabide digitalen genero-azterketa eta -monitorizazioa egiteko tresna diseinatzen eta hobetzen jarraitu dugu, eta adierazle berriak sartu ditugu.

Publizitate eta komunikazio sexistari buruzko keak aztertzen eta izapidetzen jarraitu dugu, BEGIRA-Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku batzordearen esparruan.

2021-2022ko Nahiko programan (berdintasunerako, errespeturako eta indarkeria ezarako hezkidetzeta-programa) parte hartu duten ikastetxei zuzendutako jardunaldiak eta mintegiak egin ditugu online, zikloka, eta programaren 2022-2022ko edizioan izena emateko deialdia ireki dugu.

Elkarrizketa Sozialaren Mahaiaren genero-taldearen buru izan gara, eta egin dituen 2 bileretan parte hartu dugu.

Enpresa eta erakunde pribatuek berdintasunaren inguruko diagnostikoak eta planak egiteko aholkularitza-enpresa homologatu bat kontratazeko dirulaguntza deialdia egin dugu. 84 eskabide aurkeztu dituzte, eta horietatik 62k jaso dute dirulaguntza.

«Emakumeen eta gizonen berdintasunerako lankidetzeta-erakundea» aitortpena eskuratzeko eskabideak berrikusten

*Oportunidades de Mujeres y Hombres”, y para el desarrollo de la XVII Edición (2022-2023).*

*Se ha continuado colaborando con la UPV/EHU, a través de convenio para la impartición de dos cursos online: Igualdad de mujeres y hombres; y Masculinidades. Hombres e Igualdad: retos y resistencias. Y se ha realizado 2 reuniones de seguimiento del mismo.*

*Se ha colaborado con la de la Facultad de Derecho de la UPV/EHU aportando casos para la Clínica Jurídica para la Justicia Social y tutorizando las prácticas del alumnado del grado de derecho y del Master de igualdad de la UPV/EHU.*

*Se han concedido las becas para la realización del master en intervención en violencia contra las mujeres que se imparte en la Universidad de Deusto.*

*Se ha realizado el Curso de verano en colaboración con la UPV/EHU titulado: “Cambio climático y feminismo: repensar el presente para construir el futuro”.*

*Se han concedido una subvención al Centro de documentación de Mujeres Maite Albiz.*

*Se ha apoyado y colaborado con el Consejo Vasco de la Juventud, mediante la concesión de una subvención nominativa para el asesoramiento en el desarrollo de políticas de igualdad.*

*Se continúa realizando las labores de gestión y mantenimiento del Centro de Documentación así como las derivadas de la atención a las personas usuarias.*

*Se ha continuado con la tramitación de las solicitudes ciudadanas en materia de discriminación por razón de sexo en el ámbito privado.*

*En el marco de la Comisión BEGIRA se ha desarrollado una reflexión para introducir mejoras en el trabajo con los medios y las agencias de publicidad así como para incorporar los nuevos mandatos de la ley de igualdad. Se ha continuado en el diseño y mejora de la herramienta para el análisis y monitoreo de genero de los medios de comunicación digitales de la CAE, incorporando nuevos indicadores.*

*Se ha continuado con el estudio y tramitación de quejas sobre publicidad y comunicación sexistas en el marco de la Comisión asesora para un uso no sexista de la publicidad y la comunicación, BEGIRA.*

*Se han llevado a cabo jornadas y seminarios online por ciclos dirigidas a los centros participantes en la edición 2021-22 del programa Nahiko, programa coeducativo para la igualdad, el respeto y la no-violencia y se ha abierto la convocatoria para inscribirse al programa para el periodo 2022-23.*

*Se ha presidido y participado en las 2 reuniones del grupo de género de la Mesa de Diálogo Social realizadas en 2022.*

*Se ha realizado la convocatoria de subvenciones a empresas y entidades privadas para la contratación de una consultora homologada para la realización de diagnósticos y planes para la igualdad. Ha habido 84 solicitudes presentadas, de las cuales 62 han recibido subvención.*

*Se ha continuado con la revisión y, en su caso, concesión del reconocimiento como “Entidad colaboradora para la*





Emakunde-Emakumearen Euskal Erakunde  
Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer

jarraitu dugu, eta hala egokituz gero, onartu egin ditugu. 2022an 11 enpresa onartu ditugu.

Aholkularitza eskaintzen, kudeatzen eta jarraipena egiten jarraitu dugu berdintasunaren arloan, enpresa eta erakunde pribatuei laguntza teknikoa emateko aholkularitza-erakundeak homologatzeko prozesuetan. 2022an aholkularitza-enpresa 1 homologatu dugu.

Emakume eta gizonen berdintasunerako erakunde laguntzaileen BAI Sarearen eremua, topaketak eta lan-plana sustatzen jarraitu dugu. 2022an 38 bilera eta 2 batzar nagusi egin ditugu.

Adostutako lan-planak koordinatzen, diseinatzen eta ezartzen jarraitu dugu, Emakundek Lan Ikuskaritzarekin, Osalanekin eta Euskalitekin dituen lankidetzak hitzarmenen esparruan. Lan Ikuskaritzarekin eta Osalanekin 2 bilera egin ditugu; Euskalitekin, berriz, bilera bat.

Gizonduz ekimenaren esparruan, lehen aipatutako nazioarteko kongresuaz gain, 2022ko sentsibilizazio- eta prestakuntza-programa garatu dugu. Programa horretan, 128 ikastaro antolatu ditugu (115 aurrez aurrekoak eta 13 online) eta 3.079 pertsonak hartu dute parte (1.962 gizon, 1.077 emakume eta beren burua ez-bitar gisa identifikatzen duten 5 pertsona; 35 pertsonak ez dute erantzun). Gazteak Berdintasunean proiektua berritu dugu. 61 ikastaro egin ditugu eta 1.058 lagunek hartu dute parte (793 mutil, 230 neska, 3 ez-bitar; 7 pertsonak ez dute erantzun). Gainera, webgunea eta sare sozialak kudeatzen jarraitu dugu, baita gizon politikariek eta gazte atzeritarrekin lotutako proiektuak ere. Halaber, Europako Men in Care proiektuan parte hartu dugu, eta elkarlanean aritu gara UPV/EHUren eta Elxeko Miguel Hernández Unibertsitatearen maskulinitateei buruzko graduondokoetan.

## 10. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA MURRIZTEN ETA PREBENTZIOA, DETEKZIOA ETA ARRETA HOBETZEN LAGUNTZEA.

EAEko hainbat udalerritan gertatu diren eraso sexistak gaitzesteko kontzentrazioetan parte hartu dugu.

Gazteen artean indarkeria sexista prebenitzeko erakundearteko Beldur Barik programa egin dugu (306 ikus-entzunezko aurkeztu dituzte eta 225 lehiaketara onartu ditugu), Sestaon 152 gazterekin topaketa bat, tokiko 14 lehiaketa eta topaketa, jaietako kanpainak (uda, jaialdiak, kontzertuak...).

Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako eta/edo sentsibilizaziorako jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioei dirulaguntzak emateko deialdia ebatzi dugu. 79 proiektu aurkeztu dituzte, 52k dirulaguntza jaso dute, 10 onartuta daude baina dirulaguntza jaso gabe eta 17 ezetsi egin ditugu edo atzera egin dute.

Txostena egin dugu, Segurtasun Sailak eta beste estatistika-iturri batzuek emandako emakume biktimei eta biktimizazioei buruzko datuak erabiliz.

*igualdad de mujeres y hombres". En 2022 se han reconocido 11 empresas.*

*Se ha continuado con el asesoramiento, la gestión y el seguimiento de los procesos de homologación de consultoras para la prestación de asistencia técnica en materia de igualdad a empresas y entidades privadas. En 2022 se ha homologado 1 consultora.*

*Se ha continuado impulsando el espacio, encuentros y el plan de trabajo de la Red BAI Sarea Red de Entidades Colaboradoras para la igualdad de mujeres y hombres. A lo largo de 2022 se han realizado 38 reuniones y 2 asambleas generales.*

*Se han continuado con la coordinación, diseño e implantación de los planes de trabajo acordados en el marco de los Convenios de colaboración de Emakunde con Inspección de Trabajo, con Osalan y con Euskalit. Se han realizado 2 reuniones con Inspección y con Osalan y una reunión con Euskalit.*

*En el marco de la iniciativa Gizonduz, además del congreso internacional anteriormente mencionado, se ha desarrollado el programa de sensibilización y formación 2022, en el que se han organizado 128 cursos (115 presenciales y 13 online) y han participado 3.079 personas (1.962 hombres, 1.077 mujeres y 5 personas que se identifican como no binarias y 35 que no han contestado). Se ha renovado el proyecto "Gazteak Berdintasunean", en el que se han realizado 61 cursos, en los que han participado 1.058 personas (793 chicos, 230 chicas, 3 no binarias y 7 que no han contestado). Además, se ha continuado gestionando el espacio web, las redes sociales y los proyectos relacionados con los hombres políticos y con jóvenes extranjeros. Asimismo, se ha participado en el proyecto europeo Men in Care y colaborado con los posgrados sobre masculinidades de la UPV/EHU y de la Universidad Miguel Hernández de Elche.*

## 10. CONTRIBUIR A REDUCIR LA VIOLENCIA MACHISTA CONTRA LAS MUJERES Y A MEJORAR EN LA PREVENCIÓN, LA DETECCIÓN Y LA ATENCIÓN.

*Se ha participado en concentraciones de repulsa ante agresiones sexistas en diferentes localidades del País Vasco.*

*Se ha realizado el Programa interinstitucional Beldur Barik de prevención de la violencia sexista entre la juventud con 306 audiovisuales presentados, 225 admitidos a concurso, topaketa en Sestao con 152 jóvenes, 14 concursos y tokaketak locales, campaña de fiestas (verano, festivales, conciertos...).*

*Se ha resuelto la convocatoria de subvenciones a organizaciones, asociaciones y fundaciones que impulsan y promueven actividades de sensibilización y/o de prevención de comportamientos violentos contra las mujeres. Ha habido 79 proyectos presentados, 52 han recibido subvención, 10 están aprobados pero sin recibir subvención y 17 denegados o desistidos.*

*Se ha elaborado el informe con los datos sobre las mujeres víctimas y las victimizaciones aportados por el Departamento de Seguridad y otras fuentes estadísticas.*





Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea  
Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer

Emakumeen aurkako indarkeriari arreta ematen dioten baliabideei buruzko datuak bildu dugu, eta datu-bilketa horren ondoriozko txostena prestatu dugu.

EAEEn indarkeriaren biktime diren emakumeei arreta ematen dioten baliabideak eta zerbitzuak geolokalizatzeko Baliabide Mapa interaktiboa eguneratu dugu.

Desgaitasunari, genero-indarkeriaren biktimeen seme-alabei eta adineko emakumeei buruzko oinarritzko ikastaroaren 15. eta 16. edizioak egin ditugu, baita prestakuntza aurreratuko hiru ikastaro ere, Jabetuz ekimenaren online prestakuntza-programaren esparruan.

EAEEn sexu-indarkeriaren biktime diren emakumeei arreta emateko eredu komuna diseinatzeko taldeak (Emakundek bultzatu eta koordinatzen du, hiru foru-aldundiekin) 3 bilera egin ditu, eta profesionalei arlo horretako prestakuntza emateko lau unitate didaktiko kontratatu ditugu.

Genero-ikuspegian oinarritutako mentoring sozialeko proiektu pilotu bat jarri dugu martxan, indarkeria matxistatik bizirik atera diren emakumeentzat, Bizitu elkartearekin lankidetzan.

Askabideri eta Oblatas kongregazioari bi dirulaguntza izendun eman dizkiegu, emakumeen salerosketa antzeman eta identifikatzeko, eta egoera hori jasan duten emakumeentzako laguntza eta arreta osoa kudeatzeko.

Sexu-esplotazioa helburu duen emakume eta nesken salerosketaren biktime diren emakumeentzako egoitza-baliabideari eutsi diogu.

Etxean tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko Erakundearteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordearen esparruan, dagokion Erakundearteko Talde Teknikoa eta Informazio Sistemaren Taldea kudeatu ditugu.

Erakundearteko II. Akordioko edukien betetze-mailaren jarraipenaren eta ebaluazioaren txostena prestatu dugu.

EAEEn Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistaren Biktimei ematen zaien Arreta Koordinatzeko Erakundearen arteko III. Akordioa diseinatzeko eta lantzeko lanak egin ditugu, eta Jarraipen Batzordeak abenduaren 20an egindako bileran onartu da akordio hori.

Honako hauen jarraipena egin dugu (sei hilean behingoa eta urtean behingoa): Berdintasunerako VII. Plana ezartzeko dokumentu operatiboarena; Euskadi Basque Country 2030 Agendarena; Genero-indarkeriaren aurkako Estatuko Itunarena eta Istanbulgo Hitzarmenarena.

Bizkaiko eta Gipuzkoako genero-indarkeria koordinatzeko probintziako batzordeek deitutako bileretan parte hartu dugu, baita Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokiak deitutakoetan ere.

Sexu Esplotaziorako Emakumeen eta Nesken Salerosketaren Aurkako Mahaia kudeatu dugu.

*Se ha realizado la recogida de datos sobre la atención en los recursos que atienden la violencia contra las mujeres y se ha realizado el informe derivado de esta recogida de datos.*

*Se ha actualizado el Mapa de Recursos interactivo de geolocalización de los recursos y servicios que atienden a las mujeres víctimas de violencia en la CAPV.*

*Se han realizado las ediciones nº 15 y 16 del curso básico y tres cursos de formación avanzada sobre discapacidad, hijos e hijas de víctimas de violencia de género, y mujeres mayores en el marco del programa de formación on-line de la iniciativa Jabetuz.*

*Se han realizado 3 reuniones del grupo impulsado y coordinado por Emakunde con las tres diputaciones forales, para diseñar el modelo común de atención a las mujeres víctimas de violencia sexual de la CAE, y se ha realizado la contratación de cuatro unidades didácticas de formación a profesionales en esta materia.*

*Se ha desarrollado el proyecto piloto de mentoring social con perspectiva de género para mujeres supervivientes de la violencia machista en colaboración con la asociación Bizitu.*

*Se han concedido dos subvenciones nominativas a Askabide y a la Congregación Oblatas para la detección, identificación y gestión del acompañamiento y la atención integral a mujeres víctimas de trata.*

*Se mantiene el recurso residencial para mujeres víctimas de trata con fines de explotación sexual.*

*En el marco de la Comisión de Seguimiento del II Acuerdo Interinstitucional para la mejora en la atención a mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico y de violencia sexual se ha gestionado el correspondiente Grupo Técnico Interinstitucional y el Grupo de Sistemas de Información.*

*Se ha elaborado el Informe de Seguimiento y Evaluación del grado de cumplimiento de los contenidos del II Acuerdo Interinstitucional.*

*Se han realizado los trabajos para el diseño y la elaboración del III Acuerdo Interinstitucional para la coordinación de la atención a víctimas de violencia machista contra las mujeres en la CAE, que han culminado en la aprobación del III Acuerdo en la Comisión de Seguimiento celebrada el 20 de diciembre.*

*Se ha hecho el seguimiento semestral y anual del Documento Operativo para la Implementación del VII Plan para la Igualdad, de la Agenda Euskadi Basque Country 2030, del Pacto de Estado contra la Violencia de Género y del Convenio de Estambul.*

*Se ha participado en las reuniones convocadas por las Comisiones Provinciales de Coordinación de Violencia de Género de Bizkaia y Gipuzkoa, así como en las del Observatorio de la Violencia Machista en Bizkaia.*

*Se ha gestionado la Mesa Contra la Trata de Mujeres y Niñas con fines de explotación sexual.*



Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea  
Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer

Sexu-esplotaziorako emakumeen eta nesken salerosketaren arloko hiru prestakuntza-saio egin ditugu, hiru lurralde historikoetako abokatuen elkargoei zuzenduak.

Salerosketaren biktima izan diren emakumeen kasuetako epaiak aztertzeko bi prozesu egin ditugu, Bizkaiko Probintzia Auzitegiarekin eta Gipuzkoakoarekin.

Urrian eta azaroan, 4 sentsibilizazio- eta prestakuntza-jardunaldi egin ditugu, honako gai hauen inguruan: nahitaezko ezkontzak (Salerosketaren Aurkako Europako Eguna dela eta); salerosketa kasuetako esku-hartzea, osasun-arloko profesionali zuzendua; ijitoen aurkako arrazakeria eta genero-indarkeria (Amuge elkartearekin egindako gidaren aurkezpena), eta indarkeria-baliabideen kudeaketa integratua.

*Se han realizado tres sesiones de formación en materia de trata de mujeres y niñas con fines de explotación sexual, dirigidas a los Colegios de la Abogacía de los tres territorios históricos.*

*Se han realizado dos procesos de análisis de sentencias en casos de mujeres víctimas de trata, con la Audiencia Provincial de Bizkaia y la de Gipuzkoa.*

*Se han realizado 4 jornadas de sensibilización y formación en octubre y noviembre sobre matrimonios forzosos (con motivo del día europeo contra la trata), sobre intervención en trata dirigida a profesionales de la salud, sobre antigitanismo y violencia de género (presentación de la guía realizada con Amuge), y sobre gestión integrada de recursos de violencia.*